

Politika



Joxemari CARRERE
Ipuin kontalaria

Maite ditut sortzaileei egindako elkarrizketak, batez ere luzeak eta mamitsuak direnean. Euren sormen prozesuak, bizitzaren eta munduaren gainean egiten dituzten gogoetak eta horiek sorkuntza lanetan islatzeko bideak jakitea aberasgarria zait. Frederic-Ives Jeannet idazleak elkarrizketa luzea egin dio Annie Ernaux idazleari, "Idazketa laban gisa" ("La escritura como un cuchillo", gaztelaniazko


bertsioan) liburuan bildua. Nobel sari-dunaren erantzunak bere literatura-munduan barrena eramaten gaitu, bere gogoetak, kezkak, bilaketak idazlanetan errealitatearekin uztartzeko bidean. «Izan zen nire bizitzaren gertaeren bide-tik errealitatearen eta literaturaren arteko gatazka bat, erabat aldatu zuena idaztearen nire ikuskera, kontzepzioa». Eta hausnarketa horiek irakurleari gogoetak eragiten dizkiote.

Kontu zaharrak kontalaritzaren ar-

datz izanik, nola egin nezake egungo errealitatearen isla izan daitezen? Mendeetan barrena txiroen literatura izan diren kontakizunek, zeintzuek munduaren gaineko galderak eta kezkak islatzen dituzten, bizi gaituen jendarte honetan ba ote dute balio bera? Ados nago Ernauxek dioen honekin: «Idaztea, niretzat, ekin-tza politikoa da; alegia, mundua argitzen eta aldatzen lagun dezake, edo, aitzitik, dagoen ordenamendu soziala, moralala, sendotzen». Bazen behin, gaur da.

«Kateriñe Letamendi» komikia, gerren aurkako aldarria

Maitena Illarramendik eta Iñigo Sarasolak «Kateriñe Letamendi» komikia aurkeztu zuten atzo, Donostian. Bertan jasotzen dira Illarramendiren amonaren bizipenak, 1936ko gerran bizi izan zituenen memoriak, hain zuzen. Nabarmendu dutenez, liburua «bake irrintzia» da.



Maitena Illarramendi eta Iñigo Sarasola, Donostian.

Jon URBE | FOKU

Ion SALGADO | DONOSTIA

1936ko gerrak eragindako suntsipenaren lekuko izan zen Kateriñe Letamendi tolosarra. Tropa frankisten bonba eta mehatxuetatik ihes egin behar izan zuen. Kaosaren erdian, egunerokoa idaztea izan zen bere babeslekua; sufrimenduz eta oroitzapenez betetako parte bilduma.

Kateriñeren biloba Maitena Illarramendik eta Iñigo Sarasola ilustratzaileak haren ihesaldiaren eta biziraupenaren

testigantza komiki batean jaso dute, eta atzo aurkeztu zuten Erein argitaletxeak Donostian antolatutako prentsaurkeoan.

Bertan Uxue Razquin editoreak azaldu zuenez, Letamendik idatzitako egunerokoa izan da duela urtebete mar-txan jarritako proiektu honen hazia. «Emozioz beteriko istorioa da; batzuetan agonia izango da nagusi, baina besteetan tristura, frustrazioa eragingo du», adierazi zuen komunikabi-deen aurrean, istorio gogorra izan arren erraz eta ongi

barneratuko den liburua dela azpimarratuz.

Maitena Illarramendik gogoratu zuen gerra garaian idatzitako testuak suntsitu egin behar izan zituela amonak diktadurak zabalduetako beldur-ragatik eta «laurogei urte pasa-ta» idatzi zituela berriro. «Esaten zuen ezin genuela ulertu zer zen gerra bat, gerra bat zer den jakiteko gerra bizi behar delako. Eta komiki ho-nekin hurbiltzen gara gehiago gerra bat zer den sentitzera», gaineratu zuen.

LOTURA

Illarramendik bere amonarekin izandako lotura nabarmendu zuen. «Hitz egin gabe ere elkar ulertzen genuen, begirada batekin, besarkada batekin», esan zuen, eta lotura hori ezinbestekoa izan da komikia gauzatzeko.

jendea hiltzea...», azaldu zuen. «Ematen dituzte 30-minutu eraikin bat husteko eta gero bonbardatu egiten dute. Hori ere ikusten da liburuan, bada-goelako patroli bat gerretan errepikatzen dena», adierazi zuen.

Talde lana Illarramendik go-raipatu egin zuen Sarasolak egindako lana, honek komikia marrazteko egindako doku-mentazio lan sakona, baita se-nideen parte-hartzea ere. «Hau izan da ekipo lana. Ereinetik pi-la bat lagundu digute, baina ge-ro, komikiari forma eman on-doren bildu ginen izeba, osaba eta nire amarekin. Bi bilera egin genituen testuak errepa-satzeko».

Bere amonaz hitz egitean, gogoratu zuen emakume senti-korra zela, «izaera bizikorra» zuena. Eta bere hurbilekoekin izan zuen harremana laudatu zuen. «Bere bizitzaren zentroa, gehien inporta zitzaiona, fami-lia zen, batez ere hiru seme-ala-bak. Baina biloba pila bat izan gara eta presentzia handia izan du gure bizitzan. Gurekin bizi izan da beti, guretzat bigarren ama bat izan da, eta beti ent-zun dugu gerraren historia».

Sarasolak, bestetik, oroitu du iraganean jendeak ez zuela gerraz hitz egiten: «Nire fami-lian, adibidez, 30 urterekin ja-kin nuen nire aitona Ondarre-tan egon zela fusilatua izateko zain». Liburu honekin isilune hori apurtu nahi dute, gerra-ren aurka aldarri eginez.

Ildo horretan, ohartarazi zuen liburua «bake irrintzi» bat dela. «Ez da komiki bat soi-lik, baizik eta amamaren oihua», esan zuen. Izan ere, «mundu mailan tentsio politi-ko-beliko handia dago, gerrak hemen eta han». «Goikoe f-txak mugitzen dituzte eta behekoek odola jartzen dute, herri xeheak ordaindu egiten du. Eta komiki honetan ikus-ten da zer suposatzen duen ge-rra batek; ez dira bonbak edo metraila bakarrik, ihes egin behar izatea da, errepedean